



Sheila Rubia eta Emilio Cabrera
Amona (Nafarroa)

2022 TXOSTENA

EMAN PAUSOA
GAZTENPRESAREKIN



gaztenpresa
fundazioa



Aurkibidea

1 GAZTENPRESA

2 SORKUNTZA PROGRAMA

- Enpresak sortzea
 - Finantziazioa
 - Gaztenpresa Digitala
-

3 FINKATZEKO PROGRAMA

- Aholkularitza
 - Mentoring
 - Gaztenpresa gela
-

4 KULTURA EKINTZAILEAREN SUSTAPENA

5 ERAGINA

6 GOBERNANTZA



Gutuna

Bukatu zen 2022. urtea eta balantzea egiteko unea da. Gaztenpresa Fundazioak egindakoa baloratzeko, komeni da kontuan izatea zer testuinguru ekonomiko eta sozialetan garatu duen bere jarduerak; izan ere, duela ia 30 urte hasi zenetik, Gaztenpresaren helburu nagusietako bat eraldaketa da, gizarteko errealitatea hobetzea pertsonak lan-merkatuan sartuta eta enpresa txikiak sortzen eta sendotzen lagunduta. Eta helburu horiek lortzerakoan, unean uneko koiuntura ekonomikoak faktore garrantzitsua da.

Horrela, 2022an Ukrainako gerra piztearekin denboraldi berezi bat abiatu zen, non gure inguruko bilakaera ekonomikoan ziurgabetasuna protagonista nabarmena den, bai Errusia eta bai Ukraina oinarritzko lehengaien ekoizleak direlako. Alabaina, lehengai horietatik, energia-gaiek (batez ere gasak eta petrolioak) eragin dituzte buruhausterik handienak, Europa horien mende dagoelako. Eta horrek eragina izan du inflazioan, hainbestearino non iraunkor bihurtu den eta duela hamarkada batzuetatik izan ez zuen mailara iritsi den. Hala eta guztiz ere, 2022. urtea hazkundekoa izan da, gure eragin-esparruan % 4tik gorako tasekin.

Bestalde, politika ekonomikoaren arloan aldaketa nabarmena izan dugu. Inflazio-tasa altuen ondorioz, banku zentral nagusiek tasak bortizki igo behar izan dituzte, inflazioaren igoera geldiarazteko eta berez nahiko genukeen mailara itzularazteko ahaleginetan. Alderdi positiboak helduta, bereziki nabarmendu beharra dago balore-merkatuen sendotasuna, langabezia-tasa mugatuen barruan, eta horren ondorioz, eskaerak ere sendo jarraitu du. Gaztenpresaren jardueraren bilakaeran eta tipologian, enpleguaren bilakaera funtsezko osagaia da, eta eragin zuzena dauka, noski; izan ere, Gaztenpresak bultzatzen dituen ekimenetako askoren



arrazoia historikoki lotuta egon da autoenpleguaren bidez soluzioen bat bilatu beharri, baina beste ekimen batzuen sustatzaile nagusiak izan dira, baita ere, lan-baldintza hobeketa edo lanean etorkizun hobea bilatzea.

Testuinguru benetan nahasi honetan, pozik egon gaitzeko lortutakoarekin. Datuak oso adierazgarriak dira eta erraz uler daitezke inoren laguntzarik gabe. 2022an, enpresa berriei laguntzeko gure programan, 3.212 eskaera izan ziren. Negozio-ideia horietatik, 314 enpresa txiki eta 637 enplegu berri sortu dira. Kopuruak 2021eko oso antzekoak dira, eta horrek berretsi egiten du Fundazioa osasuntsu dagoela. Bide horretan, 2022. urtean zehar, Gaztenpresak pertsona horiekin batera egin du bidea; horrela, hasieran, hausnarketa-jarraibideak eman dizkie, formazio-materialekin, edo laneratzeko programa espezifikoagoetara bideratu ditu, eta horren guztiaren ondoren, kontsulta horietatik 1.032k tutore indibidualizatuak izan dituzte Gaztenpresari esker.

Baina fokua ezin dugu jarri bakarrik kopuruetan, hau da, sortutako lanpostuen eta enpresa berrien zenbaki hotzetan; izan ere, Gaztenpresak enpresen sorrera sustatzen eta bultzatzen du, finantzatzen laguntzen du (sortu zenetik 192 milioi emanda) eta, gainera, ondoreneko etapetan orientatu eta lagundu egiten du, proiektuak sendotzeko eta horiek bizirik irauteko. Horregatik, 2022an asko eta asko izan dira eta urteko memoria honetan xehatuta daude egindako webinar, tailer eta mentoring-prozesuak.

Gaztenpresan ondo baino hobeto dakigu ekimen bakoitzaren atzean ekintzaile bat dagoela, bere jakintza eta gogo

guztia jarduera ekonomiko berri bat erditzeko jarri duena, etorkizunean bere lanpostua eta bizi-proiektua ziurtatzeko.

Horrek guztiak ardura handia dakar berekin eta erronka da, baina ez bakarrik Fundazioarentzat, gizarte osoarentzat baizik. Horrexegatik iruditzen zait hain erabakigarria ekintzailtza-kultura oinarri-oinarririk sustatzea, hau da, haurrak eskolan hasten direnetik. Berriz ere azpimarratu nahi dut: ekintzailtzarako gaitasunek oso presente egon beharko lukete hezkuntza-sistemako maila guztietan.

Gutun hau amaitzeko, bereziki hausnartu nahi dut nire ustez Gaztenpresa Fundazioaren muina denaz: LABORAL Kutxaren izaera bera izan zuen sortzeko arrazoi, eta ekintzailtza elkarlanean hitzekin definituko nuke.

Kooperatiba Esperientzia izenekoa zer den gaur egun labor eta erraz azaltzeko, beti enplegua sortzea azpimarratzen dugu, eta horretarako, bi ideia nagusi izaten ditugu euskarri: autogestioa eta lankidetzak; itxuraz, esanahiaren aldetik, aurkakoak dirudite, baina estu-estu lotuta daude elkarri. Kooperatiben arloan, eta hedaduraz gizarte-ekonomia guztian ere bai, bi kontzeptu horiek erabat bateragarriak dira; guretzat inspirazio-iturri dira eta gure eguneroko eginkizunetan gidariak dira, eta segurtasun osoz baieztatu dezaket bata zein bestea erabat baliagarriak direla Gaztenpresari esker lehen ekintzaile izan zirenetzat, gaur egun direnetzat eta etorkizunean izango direnetzat.

Ibon Urgoiti
Lehendakaria





1. Gaztenpresa

1994an, birmoldaketa industrial sakon baten ondorioz, Nerbioiko ezker aldeko gazte-langabezia % 50tik gorako mailara iritsi zen. Egoera horren aurrean, eskualde horretako LABORAL Kutxako pertsona talde bat mugitzen hasi zen, bere ezagutza eta baliabideak konpartituz, egoera horri buelta emateko aliantzak bilatzeaz batera.


Testuinguru horretan, Gaztenpresa enpresa-ideien lehiaketa gisa sortu zen. Antolatzaileak LABORAL Kutxako sukurtsaletako zuzendariak izan ziren, Bultz-Lan Consultingen sostenguarekin. Lehenengo urte horretan 10 enpresa sortu ziren, horretara zuzendutako mikrofinantziazio espezifikoak lagunduta.

Hurrengo urteetan, programa Gipuzkoa, Araba eta Nafarroan hedatu zen, beste eremu batzuetako LABORAL Kutxako lankideen ekimenez, euren lurraldeetan aplikatu nahi izan baitzuten.

Azkenean, 2002ko irailaren 16an, Gaztenpresa Fundazio bihurtu zen (diru-asmorik gabeko erakunde pribatua, LABORAL Kutxaren gizarte-ekintzan sartua), deskribatu berri dugun barne-ekintzazaitzako prozesuaren emaitza gisa.



Zer egiten dugu?



Gure ingurunean ekin nahi duten pertsoneri laguntzen diegu, arrakasta izateko ahalik eta aukera handienarekin jardun dezaten, aberastasuna sortuz enplegua sortzearen bidez.



Nola egiten dugu?

Kultura ekintzailearen garapena errazten dugu, gure taldeaz, boluntarioen lankidetzaz eta beste erakunde batzuekiko aliantzez baliatuz.

Negozioaren bizi-egoera zeinahi delarik ere, ekintzaileak honako hau aurkitzen du Gaztenpresan: prestakuntza eskuragarria; tutoreen aholkularitza, negozio-eredu egokiena aurkitzeko; finantziazio-erraztasunak; eta mentore espezializatuekin kontaktatzeko aukera, ondorengo urratsetan lagundu diezaioten.

Era horretan, ekintzaileak bidaia bat hasten du, eta geuk laguntzen diogu

ikusten zer dakarren berekin arrakasta izan dezakeen negozio bat abiatzeak. Era horretan, pertsona eta profesional gisa haziko da, bere bizi-baldintzak hobetuz. Hori, berriz, lagungarria izango da ekintzailetza Euskadin eta Nafarroan balioesteko eta sostengatzeko, auzoak biziberrituko dira, eta, azken batean, gure ingurunearen garapen jasangarria sustatuko da, kalitatezko enplegua sortzearen bitartez.



2022KO BALIABIDEAK

SORKUNTZA
TALDEA | **10**
pertsona

9€
milioi
mailegutan


126
Mentoring
boluntariotza
taldea

FINKATZE
TALDEA | **4**
pertsona

55
webinar


Gure ekarpena egin nahi diegu

Garapen Jasangarriaren Helburu hauei: (GJH)



GEk nagusiki laguntzen du
GJH hauetara (5, 8 eta 10)

GEk bigarren mailako ekarpena egiten
du GJH hauei (4, 11, 12 eta 17)

A photograph of two women in a professional setting. One woman is seated at a table, smiling broadly, wearing a white jacket over a maroon top. The other woman stands behind her, wearing a black top, with her hands resting on the seated woman's lap. In the background, a whiteboard displays a stylized illustration of a woman's face wearing sunglasses. A lamp is visible on the left side of the frame.

**"Lagundu digute
negozio-planarekin"**

Cristina Aral
y Edurne Domínguez

CONCHA CALLE
DEKORAZIOA
BIZKAIA



gaztenpresa
fundazioa



28 urte hauetan



12.041

Sortutako lanpostuak

6.578

Sortutako enpresak



26.565

eskaerak
erantzundakoak

192

milioi eurotan
finantzazioa



1.311

artatutako enpresak
sendotzen


247

mentoring

1.352

tailerrak
egindakoak

13



"Lagundu didate
hausnartzera eta nire
ideiei errentagarritasuna
ateratzera".

Félix Pikatza

KALAKA JOKUAK
ARABA



gaztenpresa
fundazioa



2.Enpresak sortzea

HASIERATIK AMAIERARA ARTE
LAGUNTZEN DIZUGU ZEURE
PROIEKTUA
ABIATZEKO LANEAN.





314

Enpresak sortuta

ARABA	44
BIZKAIA	169
GIPUZKOA	69
NAFARROA	32
GUZTIRA	314

637

Sortutako lanpostuak


ARABA	94
BIZKAIA	348
GIPUZKOA	137
NAFARROA	58
GUZTIRA	637

JARDUERA SEKTorea



SASOI JURIDIKOA





“Babes handia sentitu
dut gauza guztietan
prozesua”.

Noelia Fernández

**JAJOAN JOSTUNDEGIA
BIZKAIA**



gaztenpresa
fundazioa



Finantziazioa:

Finantza-planarekin laguntzen dizugu.
Zure proiektuaren beharrak baloratzen
ditugu, eta finantziazio-iturri egokienak
gomendatzen dizkizugu.

245 EMANDAKO
KREDITU

FINANTZIAZIOA 2022 AN
9.018.990 €

FINANTZIAZIOA 2022 AN
192 mill €

87.528 €


BATEZ BESTEKO INBERTSIOA

Batez besteko inbertsioa enpresa berriak abiatzeko.

36.812 €

BATEZ BESTEKO MAILEGUA

Enpresa-proiektua gauzatzeko beharrezkoa den batez besteko mailegua.





Gaztenpresa Digitala

Gure enpresak sortzeko zerbitzua modalitate digitalean ere dago eskuragarri.

Gaztenpresa Digitala doako zerbitzu bat da, ekintzaileei online laguntzera zuzendua. Beraren bitartez, ekintzaileek tutoretza pertsonalizatuak eta prestakuntza dituzte eskura, euren negozio-plana definitzeko, finantziazioa lortzeko eta zalantza guztiak argitzeko.

Esteka honen bidez iristen da bertara: <https://gaztenpresa.org/eu/gaztenpresa-digitala/>

Gaztenpresa digitala **doako** zerbitzua da

Lehenago pausua eman eta zure ideia errealitate bat bihurtu

➔ Izena eman nahi dut



“Egia bihurtu dugu
gure ametsa”.

Elsa Pamparacuatro
y Keko Salvador

**TXITATOKI URDAIBAI
ZIRKO ESKOLA
BIZKAIA**





3. Enpresen finkapena

Sortutako enpresen jarraipena egiten dugu eta sostengatu egiten ditugu, merkatuan iraun dezaten eta kudeaketa-ohitura egokiak eskuratu ahal izan ditzaten.






114

PROIEKTUAK
AHOLKULARITZAN



61

HARREMANAK
MENTORING



55 - 492

TAILERRETAKO
PARTE-HARTZAILEAK



69

TUTORETZA
DIGITALAK

“Lagundu egin digute
eboluzionatu
eta jarraitzeko
aurrera eginez”.

Irene Rodríguez
IDDTEK
INGENIARITZA
BIZKAIA



gaztenpresa
fundazioa



Eukene Arana
**ZAIN PROTECCIÓN
HAURRAK
ETA NERABEZAROA**

Ahokularitza

Banakako neurriak eskaintzen dizkiegu laguntza bereziren bat behar duten enpresei. Hala, 2022an egindako ahokularitza-lanak lagungarriak izan dira enpresentzat, bai inbertsio berriei heltzeko, bai jarduera-ildo berriak edo ekintza zuzentzaileak txeratzeko, bai laguntza eta mailegu berriak eskatzeko, eta baita eskualdaketak errazteko ere.

Mentoring

Mentoring-programak zenbait modalitate izan ditu aurten:

- **Mentoringa YBSren metodologiarekin.**

YBSren mentoring-programa erreferentziazko eredu bilakatu da nazio mailan eta nazioartean. Eredu horretan, esperientzia duten enpresari edo profesionalek akonpainamendu pertsonalizatua eskaintzen diete ekintzaileei, boluntario gisa arituz, haien negozioak abiatzeko eta finkatzeko zereginean.

- **Business Development Services for migrant.**

Helburua da enpresa-sena migratzaile-talde horien artean bultzatzea, zeren sarritan ohikoak baino handiagok diren oztopoak aurkitzen baitituzte

euren jaioterra ez den herrialde batean ekiteko (hizkuntza-barrerak, karga administratiboa, tokiko legedia ez ezagutzea, etab.). Eskaintzen zaien laguntza coaching, training eta mentoringa dira.

- **“ The Break”.**

“The Break” emakume ekintzaileen talentua kapitalizatzeko diseinatutako programa bat da. Horretarako, emakumezkoen ekintzaitzarako komunitate kolaboratibo bat bultzatzen du.

Impact Hub Donostiak programaren zati bat garatu du Euskadin, eta geuk emandako laguntza izan da behar izan dituzten mentoretzak eskaintzea.



Gaztenpresa Gela

Urtean zehar, online tailerren programazio oso bat gauzatzen dugu; bertan, ekintzaileek euren negozioaren eremu digitalarekin (Astelehen Digitalak) eta osasun finantzarioarekin (Asteazken Finantzarioak) lotutako kompetentziak eskuratzen dituzte.

Webinar horietara zuzenean etortzeaz gain, baimena ematen duten parte-hartzaileak Gaztenpresa Gela plataforman erregistratzen dira, eta hori egiten dutenak bertara konektatu daitezke, bai tailerraren bideoa berriz ikusteko eta bai aurkezpenaren materiala eskuratzeko.

Sarbidea esteka honen bidez egiten da: <https://miproyecto.gaztenpresa.org/aula/login/index.php>






4.Kultura ekintzailearen sustapena

Kultura ekintzailea prestakuntza-zentroetan eta unibertsitateetan eskuratzen laguntzen diegu gazteei, gure herrialdeko enpresa-ehunak etorkizunean hazten jarrai dezan.

Helburu horri begira, honako ekintza hauek gauzatzen ditugu:

- Sariak unibertsitate-eremuaren barnean antolatzea.
- Hezkuntzaren eremuko ekitaldietan parte hartzea eta ekitaldi horiek sustatzea.







5.Impaktua

Bizi ditugun aldaketa- eta ziurgabetasun-uneen jakitun egonda, orain inoiz baino funtsezkoagoa da ekintzaileei euren proiektuak sortzen eta finkatzen laguntzea, geure ingurunean lanpostuak eta aberastasuna sortzeko xedez.

Gainera, ezin baztertu ditzakegu gizarte gisa aurrez aurre ditugun eta bertan geratzeko etorri diren beste erronka batzuk*, hala nola erronka demografikoa, erronka teknologikoa eta erronka klimatikoa.

Alde horretatik, Gaztenpresatik gure jardunak sortzen duen inpaktua neurtu nahi dugu:

- **Pertsonengan sortzen duena.**
- **Haien negozioetan sortzen duena.**
- **Eta gizartean sortzen duena.**

*Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailak eta ISEAK Fundazioak sustatutako "Euskadiko Enpleguaren Liburu Zuritik" ateratako erronkak.





“Eskerrik asko
laguntzeagatik
mantendu behar da
gure lana”

Patxi Vizcaino,
Imanol Lecuona
Iñigo García

**VAPREST
GIPUZKOA**

EKINTZAILEEN PROFILA



39

BATEZ
BESTEKO
ADINA



GIZONAK
%50



EMAKUMEAK
%50

LAN EGOERA

ENPLEGUA HOBETU

%47

LANGABEAK

%29

BESTE KASU BATZUK

%24

IKASKETA MAILA

UNIBERTSITATEAZ KANPOKO

%73



UNIBERTSITATEKO IKASKETAK

%27



**"Lortu dugu
errealitate bihurtzea
gure proiektua**

Igone Agirre, Asier Calle
Aitor Igarritz

**IGASI
GIPUZKOA**



gaztenpresa
fundazioa



“Gazteak gara
eta behar genuen
alternatiboak”.

Laura Leandro
Noel Herresánchez
**HOUSE
OF MOVEMENT
EXPERIENCE
BIZKAIA**



pertsonengan duen Impaktua

Kontuan hartu behar dugu gizarteak gauza asko irakasten dizkigula, baina ez duela irakasten zein den ekiteko modua, eta oso desberdina dela beste batzuentzat lan egitea. Ekin nahi baduzu, zeure negozioaren lokomotora gisa jardun beharko duzu.

Horregatik, aurreneko aldiz ekiteak, gure laguntza jasotzen duten pertsona askoren kasuan bezala, badu erronka erantsi bat, hots, jarrera aldaketa bat.

Erakutsi nahi diegu zer den ekitea eta zein garrantzitsua den negozio bat kudeatzen ikastea, epe luzera bizirik irauteko aukera izan dezaten.

EPE LABURRERAKO ALDAKETAK

Inplikazioez kontzientziaztea

Norberaren garapen profesionala erraztea

Diru-sarrera nahikoak eskuratzea

Lan-merkatuan sartzea

EPE LUZERAKO ALDAKETAK

Autonomia finantzario handiagoa

Norberaren bizi-kalitatea hobetzea

Norberaren gaitasunetan konfiantza handiagoa


izatea

EKINTZAILEEN IRITZIA

Negozia abiatzen duten urtean.

Zer da gehien baloratu duzuna gure laguntzatik?

(Garrantziaren ordenaren arabera)



BALORATUENA

1


NEURE
NEGOZIO-PLANA PRESTATZEA

2


BANKU
FINANTZIAZIOA LORTZEA

3

ZIURGABETASUNA
MURRIZTEA



Nola ekin diozu?




Orokorrean BAI, baina azpimarratzen dute sakrifizio pertsonala eta dedikazio-aldia aurreikusitakoa baino handiagoak izan direla.

BIZI-KALITATEAN INPAKTUA

Ekintzaileen bizi-kalitatean izandako inpartua, negozioaren jardueraren lehenengo 5 urteetan.

Abentura hau hasi duzunez geroztik, hobera egin du zure bizitzak?





Lehenengo urtean, **Lehenengo urtea gainditu eta gero**, parametro guztiek hobera egin dute, batez ere errealizazio pertsonalak, norberaren arau propioen arabera lan egiteak eta gizarteari egiten zaion ekarpenak.



Zure negozioaren eta bititza pertsonalaren arteko balantzeak aurrera egiten du espero zenuen bezala?

Hiru kasuetan, egoera nabarmen hobetu da, esan daiteke autonomia pertsonalaren arloan dela apur bat txarragoa, gainerako kasuen aldean.





negozioetan izandako Impaktua

Gaztenpresara etortzen diren pertsona guztiak negozio-ideia batekin iristen dira, baita ideia hori gauzatzeko asmo irmoarekin ere; eta gure helburua da bertan sortzen diren negozioek ahalik eta arrakasta aukerarik handiena izatea. Horrek, batzuetan, garaiz "EZETZ" esatea eskatzen du, ekin nahi duen pertsonari kalte egingo liokeen porrot bat saihesteko.

**BIZIRAUPEN
TASAK %69**

Eustat-en % 45aren aurrean

gizarte- eta ingurumen-
inpektua duten:

Negozioen % 17tik
% 24ra pasatu gara

GIZARTE- ETA INGURUMEN-INPAKTUA DUTEN 76 ENPRESA SORTU DITUGU



14

Enplegu
prestakuntza



25

Osasuna
ongizatea



14

Ingurumena



23

kirola, artea,
kultura



9

Kooperatibak

Zure negozioia nola garatzen ari den jakin nahi dugu.

FAKTURAZIO

Azken urteko fakturazioak gora egin du kasuen % 68an; kasuen % 21ean berdin jarraitu du, eta kasuen % 11n behera egin du.

% 45ek jarduera-ildo berriak gehitu dituzte.

% 9k negozioaren kokagunea aldatu behar izan dute, espazio gehiago behar zutelako.

EMPLEGUA

Negozioen % 56k enplegu gehiago sortu dute, enpleguen % 90 mugagabeak izanik.

Enplegatutako pertsonen % 57 emakumeak dira.


Enplegatutako pertsonen adinari dagokionez:

% 56 30 eta 50 urte bitartekoa da.

% 27 30 urtetik beherako da.

% 17 50 urtetik gorakoa da.

Zer soldata ahalbidetzen dizu zure negozioak?



%73 BIZITZEKO AUKERA EMATEN DIE

Ekintzaile-taldearen ordainsariaren eta enpleguaren sorreraren arteko lotura:

- urteetan zehar sortutako lanpostuen batezbestekoa ekintzaileak adierazitako egoera ekonomiko samurrearekin batera handitzen da.
- Badira ekintzaile batzuk, soldata kobratzeko diru nahikorik ez irabazi arren enplegua sortu ere egiten dutenak, eta kasuen % 67n lanpostu horiek mugagabeak dira.
- Batez beste, **kontratuen % 90 mugagabeak dira.**

Enplegua maila guztietan sortzen da.



gizartean izandako Impaktua

Gaztenpresak lortu nahi du enpresa horiek euren inguruneko aberastasuna hobetzeko egiten duten ekarpenak gizartearen aitortza eta balioespena jaso ditzala. Horrek ahalbidetuko du tokiko komunitateak hobeto aitortu ditzala ekimenak abiatzen dituzten pertsonak, zeren eta hori, azkenean, lagungarria izango baita herritarrek gehiago konprometitu daitezen tokiko kontsumoarekin.

PERTSONA KALTEBERAGOENTZAKO ENPLEGUA:

% 29 langabeziatik datoz

%43 derrigorrezko ikasketak soilik dituzte

%11 migratzaileak dira

%50 emakumeak dira

% 26k 35 urte baino gutxiago dituzte

% 22k 45 urte baino gehiago dituzte

TOKIKO ABERASTASUNA SORTZEA

Negozioen % 63
herrialdeko hiriburuetatik
kanpo daude kokatuta.

Sortutako negozioen
batez besteko inbertsioa
87.500 € dira.

Diru-bilketa mailari egindako ekarpena:
Sortutako enpresa bakoitzeko,
20.300 €-ko diru-bilketa egin da
zergen bidez



6. Gobernantza

Patronatua da Gaztenpresaren aginte-organo gorena. Bera arduratzen da Fundazioaren izen ona eta zeregin ona mantentzeaz, erabateko gardentasunarekin eta gurekin elkarreragina duten erakunde eta pertsona guztiengan konfiantza sortuz: ekintzaileak, enpresak, laguntzaileak, gobernuak, gure taldea osatzen duten profesionalak, etab.

Patronatua 7 pertsonaz osatuta dago. Pertsona horiek bost urterako aukeratzen dira, eta epe berdinez aukeratu daitezke berriro, inolako mugarik gabe.

Gaur egun, Patronatua osatzen duten pertsonak honako hauek dira:

- **Lehendakaria:** IBON URGOITI
- **Lehendakariordea:** OSCAR MUGUERZA
- **Idazkaria:** SUSANA ANDRÉS
- **Batzordekideak:**
 - IÑIGO MARTINEZ
 - JAVIER CORTAJARENA
 - JOSEBA SAGASTIGORDIA
 - IÑAKI PEÑA




2022KO URTEKO KONTUAK

AKTIBOA	2022	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	2022
AKTIBO EZKORRONTEA	189.000	ONDARE GARBIA	879.659
		PASIBO EZ-KORRONTEA	864.235
AKTIBO KORRONTEA	1.757.158	PASIBO KORRONTEA	202.264
AKTIBO GUZTIRA	1.946.158	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA	1.946.158

* Eurotan adierazita.



A) EKITALDIKO SOBERAKINA	2022
OPERAZIO JARRAITUAK	
1. Jarduera propioaren sarrerak	1.189.985
a) Promozio, babesle eta laguntzaileen bidez eskuratutako sarrerak	909.985
b) Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	280.000
2. Salmentaren eta merkataritza-jardueraren beste sarrera batzuk	25.939
2. Gastuak diru-laguntzengatik eta beste batzuegatik	(460.774)
a) Diruzko laguntzak	(6.000)
a) Diruz besteko laguntzak	(454.774)
3. Jardueraren beste sarrera batzuk	-
4. Jardueraren beste gastu batzuk	(546.617)
5. Ibilgetuaren amortizazioa	(44.938)
6. Hornigaien gehiegizko kantitatea	-
JARDUERAREN SOBERAKINA	163.595
7. Finantza-sarrerak	478
FINANTZA-OPERAZIOEN SOBERAKINA	478
SOBERAKINA, ZERGEN AURRETIK	164.073
11. Mozkinen gaineko zerga	-
ONDARE GARBIAREN ALDAKETA, EKITALDIAREN SOBERAKINEAN AITORTUA	164.073
ERRAKUNTZEK ERAGINDAKO DOIKUNTZAK	-
OSOKO EMAITZA, ONDARE GARBIAK EKITALDIAN IZANDAKO ALDAKETA	164.073



 **900 101 143**

info@gaztenpresa.org

www.gaztenpresa.org

